

Euskal AEko I+G gastua % 4,0 igo zen 2018an

Dedikazio osoko I+Gko langileak % 3,4 gehitu ziren

2018an Euskal AEn Ikerketa Zientifikoko eta Garapen Teknologikoaren (I+G) jardueretako barne-gastua % 4,0 igo zen. Ondorioz, hirugarren urtez jarraian izan ditu tasa positiboak, Eustatek prestatutako **behin-behineko emaitzen** arabera. Era berean, dedikazio osoko I+Gko langile-kopurua % 3,4 hazi zen.

Betearazpen-sektoreen arabera, I+Gko barneko gastuaren eta langileen zifrek honako bilakaera hauek izan dituzte:

- Sektore nagusiak, enpresa-sektoreak, % 5,0 egin zuen gora gastuan eta % 3,3 langilerian, I+G jardueretarako.
- Goi-mailako Irakaskuntzan gastuak ere % 4,2 egin du gora eta I+Gko langileriak % 3,8.
- Azkenik, administrazio publikoak gastua % 7,2 murriztu du, kapital-gastuak (Inbertsioa) murriztu egin direlako, eta gora egin du % 2,7 I+Gko langileriak.

I+Gn gastua eta arduraldi osoko pertsonala, exekuzio-sektoreari jarraiki (Δ%). 2017/2018

	I+G GASTUAK	PERTSONALA (DOB)*
GUZTIRA	4,0	3,4
Enpresak eta IAGEP	5,0	3,3
Herri administrazioa	-7,2	2,7
Goi-mailako irakaskuntza	4,2	3,8

*DOB: dedikazio osoko baliokidetzatza

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Ohar metodologikoa: Eustatek 2018an I+Gko barneko gastuek eta langileek izan duten bilakaerari buruzko **datuen aurrerapena** 2019ko uztailean egin du, eta behin betiko datuak 2019ko azaroan ezagutzera ematea aurreikusten da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62